

Gizona gizonarentzat

Gizartea. Gaiztakeriaren arra sartu ete da gizartera. Guztiak, ondo, izan gura ta ona zaurituta agertzen da. Ona ezin bizi da berari zor jakon bizikeraz. Jakituri maltzurra, beti, dabil bearrean norbereriaren otseintzan.

Gaiztakeria gaiztoa da ta zorrotza. Bere burua, bere biotza, bere gorputza besterik ez dau ikusten. Berez gizarterako jaioak gara, geure almenak argi diñoenez. Ta gizonak dira gizartearen etsai.

Gizona gizonarentzat otso, lapur ta gaizkille bihurtu da. Ainbeste txarkeriren gaiztakeria milla eratarazuritu nai izan da gizartean. Leunkeria, jakituria, indarra, bide guzti orrek izan dira norberereri maltzur batzuen estalpetzat onartuak.

Itxas ertzak itz egin al ba'lebe, ur zabalak zear batetik bestera eroan diran ondasunen barri emongo leuskigue. Euren lotsariz ta langille askoren izerdiz nortzuk aberastu diran esango leuskigue.

Ondasunekin sortu ziran

jauregi izugarriak jaun Epulonentzat uri aundietan, jolas-tokiak eta gazteluak itxas ertzeetan. Aundiki deituak bizi dira aberaskerizko etxe orretan. Gela bakoitzean telebiziño-urrutikuskin bat, an, sartzen dan lagunaren jolaserako.

Apariak, jolasak, dantzak, noz-nai, ospatzen dira gazteluko arresi barruan. Elxeko jauna, alaiki, agiri da edarion indarrez. Buruko argitasunak illuntzen doaz, edozeri on eritxiez jauntxoak eta lagunak ez dakie zer egin. Osta-osta dagoz oiñen gainean.

Euren griña gaiztoen aurka dagon gizontasundun guztia ba doa berantza. Jauntxoa adur dariola bazter batean jarri da lo antzean. Petronio, gau artako jai-bizkortzaillea, edariak goituta agiri da. Jota dagoela dirudi. Arako nexkatx buru ariña zigarroak erre ta erre ebi-llena, zorabiatuta jausi zan bazter erdi illunean.

Geiago edo gitxiago nastauta dabilatzaz, giza itxura alderdi batera itxirik, edariak samatik bera batak besteari botaten. Parkatu. Ez dakie zer egiten daben.